

ORZADARRA, ITSASOKO ARRAINIK EDERRENA

Itsaso zolan, arrain bat bazen.

Bena ez zen besteak bezalako arrain bat : itsasoko arrainik ederrena zen.

Orzadar baten koloreak bazütüan eta bere eskatek hanitx argitzen züen.

Beste arrainek soegiten zütüen eskata eder horik.

Kolore horien gatik züen deitzen "Orzadar".

"Orzadar, haigü gurekin txotaka!" erraiten zeioen. Bena Orzadar igaraiten zen heien kantüan deüsere erran gabe, soa harro eta eskatak argi-argiak.

Arrain ttipi urdin batek jarraiki züan erraitetz :

« He ! Ozadar hago hor ! eman ezadak hire eskatarik bat, hain dütük eder eta hanitx badütük hik ! »

« ene eskata bat eman ? bena zer uste dük ? Ken hadi hortik ! » erran zeion Ozadarrek goratik sogitez.

Harritürik, arrain urdiña ezkapu zen zale-zalea.

Beste arrainer kontatzen dü agitü zaiona. Geroztik, ihorere ez zen elestatü nahi

Orzadarrekin. Eta haren kantüan igaraiten zirelarik, ororek bürüa üngüratzen züen.

Bena balio düa mündüko eskata ederrenetarik ükeitea ez bada soegilerik ? orai, Ozadar ez zen baizik arrainik ederrena bena orai bakartarzünean habororenik bizi zen arraina ere.

Egün batez, bere arrenküarak aipatü zütüan itsas-izarrari.

« Hain eder niz, erraiten deio ; zentako ihorerek ez naü maite ? »

Itsas-izarra ixilik egoiten da ixtant bat eta erraiten deio :

"Habil harpeala Oktopüzten ikustera, heltü bada harek aholkü bat emanen deik."

Ozadarrek zale harpea ediren züan. Zer ülün zen ! Ez zen abantsü deüsere ageri.

Hainbestenarekin, ikusi zütüan bi begi, argi-argiak ülün beltzean.

Hiri beso hüllantü zeitzon.

Botz lodi batekin, Oktopüz deitzen den olagarroak erran zeion :

"Hire haidürü nündüan, olatoek hire historia kontatü deitade.

Ontsa entzün ezak ene aholküa : galtatzen deat arrain bakotxari emaitea hire eskatarik ederrena...

Ez hizateke haboro arrainik ederrena bena bai segür arrainik irusena."

"bena..."erran züan Ozadarrek. Ez züan deüsere besterik erran ahal izan, Oktopüz jadanik joanik zelakoz.

Ene eskatak eman ? ene eskata ederrak ?

Sekülan ! ah ! ez !

Ez nizatele irus izaten ahal horiek gabe !

Hainbestanerin, senditü züan hura igitzen. Arrain urdiña berriz bere kantüala jin zen.
"Ozadar, otoi, goxo izan hadi, hire eskata ederretarik bat eman ezadak !"
Ozadar düdan zen. Eskata ttipiñi bat, ados, pentsatü züan, ez dükek ageri.

Orzadarrek arraheinki elki züan bizkarreko eskatarik ttipiena eta eman zeion arrain urdiñari.
"To, hortxe dük ! eta orai habil hortik !"
"eskerrik hanitx, eskerrik hanitx ! "erran züan arrain ttipiak, botzik, "bihotz honekoa hiz
Orzadar !"
Orzadar gaizki senditzen zen. Lüzaz soegin züan arrain ttipia hürrüntzen eskata ttipiarekin.

Arrain ttipi urdiña paseatü zen eskata ejerrarekin eta ororek soegiten züen.
Berehala, Ozadar, arrain ttipi saldo batez üngüratürik zen : ororek eskata bat nahi züen !
Eta norek uste ükenen züan ! Ozadar bere eskaten banatzen hasi zen.
Maite züan lagünen boztarioaren ikustea.
Geroago eta haboro eskata disdiratsü baziren haren üngürüan eta Ozadar ontsa senditzen
zen horien erditan.